

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Behin betiko onestea udal hilerriaren mantentze zerbitzuagatik tasa ordaindu behar dutenen 2025eko errolda

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko otsailaren 27an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion udal hilerriaren mantentze zerbitzuagatik tasa ordaindu behar dutenen 2025eko erroldari. Onespen erabaki hori (2025/594 espediente) 2025eko maiatzaren 7ko ALHAOn (27 zenbakia) argitaratu zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak 98.3. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2025eko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (egun biak barne) ordaindu ahal izango da, borondatezko epean, udal hilerriaren mantentze zerbitzuagatik ordaindu beharreko 2024ko tasa.

Ordainagiriak helbideratuta ez dauzkaten zergadunek udaletxeko herritarren kutzazainean eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dute zerga, pasabide horretara udalaren web orriaren bidez (<https://udala.amurrio.eus/eus/zerbitzuak/ogasuna-eta-zerga-bilketa/ordainketa-pasabidea>) edo Eusko Jaurlaritzaren "Mipago Wallet" aplikazioaren bidez sartuta. Kobrantza aldia hasi baino 15 egun lehenagora arte onartuko dira helbideratzeak.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketarako Araudi Orokorrak; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2025eko apirilaren 14a

El alcalde

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA